



Aurrera!

40. zk.
2010eko abendua

Berrikuntzaren eta Teknologia Berrien dibulgaziozko buletina

Bulego Teknologikoak argitaratua
Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza

AURKIBIDEA

- Blogak eta WordPress

2. or.

- Segurtasun Eskema
Nazionalera eta
PLATEA Segurtasun
Eskuliburura
egokitzeko plana

6. or.

- Alboan:
Genero-zuzentzailea
(Emakunde)

10. or.

- Berri laburrak:
"Ekonomiaz"
aldizkariaren hogeita
bosgarren urteurrena

Internetez eta
nabigatzaileez ikasi
ditudan hogeitau

12. or.

Blogen gaia ez da kontu berria. Are gehiago, gure Aurrera Buletinaren aurreko bi zenbakitan gai hori jorratu genuen, bi ikuspegitatik. Batean blogen jatorria eta erabilera aztertu genuen, eta bestean Blog Korporatiboen ezaugarriak azpimarratu genituen. Oraingoan, aldiz, "*Blogak eta WordPress*" izeneko lehen artikulua honetan, gaur egun, blogak diseinatzeko gehien erabiltzen den plataforma bat aurkeztu nahi dizuegu: *WordPress*

"*Segurtasun Eskema Nazionalera eta PLATEA Segurtasun Eskuliburura egokitzeko plana*" izango da Buletinaren bigarren gaia. Artikuluan azalduko dizkizuegu, alde batetik, plan horren ezaugarri nagusiak; eta, beste alde batetik, indarrean dagoen legedia betetzeko hurrengo hilabeteetan egin beharrekoa.

Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko ekimen berri bat aurkeztuko digu: "*Genero-zuzentzailea*". Alboan atalean, tresna informatiko berri baten erabilera azalduko digute. Tresna hori azken hilabeteetan garatu dute eta laster erabili ahal izango dugu gure lanpostuetan.

Gure Buletinaren atzeko orrialdean, Berri laburren atalean, ohi dugun bezala, bi artikulua sartu ditugu: Alde batetik, "*Ekonomiaz aldizkariaren hogeita bosgarren urteurrena*" izenekoak; bertan, laburki azalduko dugu 1985etik hona aldizkari horren ibilbidea eta zer berrikuntza gehitu dituen. Bestetik, "*Internetez eta nabigatzaileez ikasi ditudan hogeitau kontu*" izenekoak; honen bereizgarriarik esanguratsuenak da, besteak beste, HTML lengoaiaren 5. bertsioan diseinatu dela.

Eta bukatzeko...

*Zorionak
eta Urte Berri oparoa!!*

Blogak eta WordPress



Interneteko mundua ez litzateke gaur egun ezagutzen dugun bezalakoa izango blogengatik ez balitz. Denbora gutxian eraldatu dute bai web 2.0-ren edukia baita diseinua ere. Hori dela eta, artikulua honen bidez, gaur egun blogak diseinatzeko gehien erabiltzen den plataforma bat aurkeztu nahi dizuegu: *WordPress*.



HIZTEGIA

¹ **Wikipedia:** Blogaren definizioa wikipedian: <http://es.wikipedia.org/wiki/Blog>

Blogei buruzko informazio gehiago izateko irakurri bi artikulua hauek:

- “*Weblog*” artikulua, Aurrera buletina, 17. zk. (2005eko martxoa).
- “*Blog Korporatiboak*” artikulua, Aurrera buletina 21. zk. (2006ko martxoa).

² **Wikia:** Hawaiierrazko *wiki* hitzetik, «azkar»; webgune mota bat da, erabiltzaileak pertsona asko izan daitezke, eta guztiak aukera dute web-nabigatzaile baten bitartez orriak (edukiak) editatzeko.

Wikiak blogaren lanabes berdina erabiltzen ditu, baina badu funtzionalitate berezi nagusi bat: **edozeinek eralda dezake edukia**. Horregatik, aukera ona da taldeko lana errazteko.

Laburki esanda, blogaren eta wikiaren arteko desberdintasunik handiena hauxe da: wikia **irekia** da, horrek esan nahi du taldeko edozeinek alda dezakeela beste batek sartutako testua.

Printzipioz, blog, weblog edo bitakoraren definizioa oso sinplea da, web-orri bat da, non edukiak begi bistan ikus baitaitezke **sarreretan** edo **postetan** egituratuta eta **kronologikoki** ordenatuta; aldi berean, irakurleei aukera ematen die sarrera bakoitzaren **iruzkinak** idazteko, sarreraren behe aldean.

Edukia gehienetan subjektiboa izaten da, *bloggerak*, idazleak, errealitateari buruzko bere ikuspuntua azaltzen baitu. Egunkari (edo astekari edo...) gisa, gertakariak nola ulertzen dituen adierazten du. Gai orokorreko buruzkoak direnean blog horizontalak esaten zaie, eta berariazko gai bati buruzkoak direnean, aldiz, bertikalak. Nolanahi, subjektiboa izatea ez da nahitaezkoa, informazio objektiboak ere izan daitezke.

JATORRIA

Wikipediaren¹ definizioaren arabera, nahiz eta bitakoren jatorri historikoa 1994koa den, bloga, gaur egun ezagutzen dugun bezala, 2000ko hamarkadan sortu zen eta 2005etik aurrera zabaldu. Web 2.0 deritzonek gure garaia honen gako nagusia da, sare sozialak eta hein txikiago batean wikiak² hedatu diren honetan.

Horrela, blogak gizartearen asko zabalduta dira, eta soslai soziologiko zein kultural askotako pertsonak erabiltzen dituzte. Areago, bloga komunikatzeko bidetzat hartzen da; beraz, garai hauetako modernitate itxura adierazi nahi izanez gero ezinbestekoa izango du blogetara jotzea, bloggerra gu geu, pertsona bat, izan edo erakunde bat izan. Hortaz, beste komunikabideen osagarri bilakatu da; adibidez, kazetaritzan azaltzen diren ohiko iritzi-artikuluen gehigarria izan daiteke.

Batzuetan esaten da blogak eragin handia duela edozein gairi buruz; ez onarpenaren aldetik

soilik, baizik eta “*nagusitasun moral*” bezala ere erreferentzia izan daitekeela. Baina, zer adierazleren arabera esan daiteke blog batek eragina duen ala ez? Batetik, ohiko webguneen



adierazleak ditugu: **bisitak**, alde batetik; eta web horretara daramaten **kanpoko estekak**, bestetik. Hirugarren adierazlea (blogen berezko adierazlea) **iruzkinen** kopurua da, horren arabera neurtzen baita idazlearen gaitasuna eztabaidak sortzeko. Hain zuen, eragin handiko bloggerrak badira, gaitasun horri esker kontratuak lortzen dituztenak, marketingera bideratu, bistan denez.

Iruzkinei dagokienez, oso kontu garrantzizkoa da, zeren jendeari zuzenean parte hartzeko eskaintzen zaion aukera mehatxu ere bai baita aldi berean. Iruzkinek blogaren atzean dagoenaren iritziak nola balioesten diren jakiteko multzoa sortzen dute. Iruzkinek moderatzeko zenbait modu daude: Iruzkinek guztiak onartzea, iruzkinik ez onartzea, alde aurretik erregistratua egon behar izatea... Nolanahi ere, blogak gardentasunez jokatzeko konpromisoa dakar eta kritikak zein gorespnek kudeatzeko jarrera ona izatea. Blogak jarraitutasuna behar du mantentzeko; beste modu batera esanda, ez zaio hiltzen utzi behar

argitalpen faltarengatik, behar den garaian ureztatzen ez ditugunean landareak bailiran.

BLOG MOTAK ETA MODALITATEAK

Blogen munduaren baitan bi kategorizazio daude, zenbait irizpideren arabera eta bloga kudeatzeko erabiltzen den softwarearen arabera. Bi modalitate hauek dira:

- SaaS (*Software as a Service*) moduan soilik eskuratu daitekeen software kudeatzailea; hau da, bloga soilik ibiliko da baldin eta blogen hornitzailearen web-plataforman kokatuta badago. Adibidez, *blogger* edo *blogspot* zerbitzuak. Eta euskaraz, *blogari* edo *blogak* daude aukeran³.
- Software-kudeatzaile instalagarria: Softwarea edukiz gero, norberaren web-zerbitzarian instala daiteke. Aukera zabala da zenbait irizpideren arabera: funtzionalitateak, salneurria, askatasuna, produktua zabaldua ote dagoen, hau da, komunitateak ote dituen, hornitzaileak...
- Tarteko aukera: Nahiz eta hornitzaileak produktua bere web-plataforman eskaintzen duen, aukera ematen du beste zerbitzarietan ere instalatzeko. Horrelakoa da *WordPress* aukera. Geroago gehiago hitz egingo dugu horri buruz.

“Gaur egun, WordPress da blogen munduko software plataforma nagusia.”

Gaurko blogek, testu soileko sarrerak izateaz gain, eduki aberastuak eta multimedia ere izaten dituzte batzuetan. Beraz, sarrera edo *post* bakoitzak testu formateatua izan dezake (beltza, etzana, koloreduna), Interneteko html elementuak (estekak, taulak) eta, noski, irudiak, audioak eta bideoak. Are gehiago, testuko blogen hurrengo belaunaldia ditugu *podcast*-ak eta *vidcast*-ak. Horieta, idatzitako hitzak beharrean audio-grabaketak edota bideoak argitaratzen ditu egileak, kronologikoki. *Podcasting*-ak modan jarri du audioak *podcast blog* batetik sakelako telefonora edo mp3-ra jaistea, alde batetik bestera goazenean entzun ahal izateko, kalean edo metroan, adibidez.

Lehen, antzinako modalitatean irakurleak web-orri bakoitza bisitatzen zuen eguneraketak ikusi ahal izateko (hori ez zen oso eroso erabiltzailearentzat). Gaur egun, irakurleek blog baten nobedadeak (sarrera berriak) jarrai ditzaten, RSS kanalen bidezko jakinarazpen automatikoak erabiltzen dira. Horri esker, irakurleak blogaren argitalpen berrietara “harpidetu” egiten dira, eta horrela programa gehitzaile baten bidez albisteak jasotzen dituzte argitaratzen diren unean. Posta elektronikoa



bidezko harpidetzaren berdintsua da, baina bi desberdintasun daude: bat, irakurleak ez du posta elektronikoa programa-bezeroa erabiltzen, baizik eta RSS deritzon gehitzailea; bestea, idazleak ez du mezua eskuz bidali behar, igorketa automatikoki egiten da blogaren software kudeatzailetik programa gehitzaileara.

Blogei buruzko hiztegia osatzeko, zenbait kontzeptu osagarri azalduko ditugu:

- *Permalink*: Blogaren sarrera bakoitzerako esteka iraunkorra.
- *Trackback* eta *Pingback*: Blog baterako estekak dituzten beste blogak ezagutzeko.
- *Blogroll*: Gure blogetik beste blogetara estekak.
- *Planet*: Beste blogetan gai bati buruz idatzitako sarrerekin osatutako blog berria.
- *Blogosfera*: blog guztien multzoa.

ZER DA WORDPRESS?

WordPress⁴, gaur egun, software plataforma nagusia da blogen munduan. Hirurogei hizkuntza baino gehiagotara itzulita dago (euskaraz barne); lehen bertsioa 2003ko



HIZTEGIA

³ **Blogak**: Jarraian, zuen blogak sortzen lagunduko dizueten webgune batzuen helbideak:

Blogger:

www.blogger.com

Blogspot:

www.blogspot.com

Blogari:

www.blogari.net

Blogak:

www.blogak.com

⁴ **Estatistikak**:

Plataformen erabilerari buruzko datuak.

http://w3techs.com/technologies/overview/content_management/all

WordPress-eko webgunea:

www.wordpress.org



HIZTEGIA

⁵ WordPress:

Wordpress-i buruzko zenbait zifra:

- 66 hizkuntza
- 3.0 bertsio berriaren deskargak: 24 milioi baino gehiago.
- Diseinu-txantiloak: 1.289
- Diseinu-txantiloien deskargak: ia 24 milioi
- *Pluginak* edo luzapenak: 12.174
- *Pluginen* deskargak: 132 milioi baino gehiago

www.wordpress.org

⁶ **Izenak:** WordPress-ek bere produktuaren bertsio bakoitzari jazz-musikari baten izena ematen dio, gehi bertsioaren zenbaki tipikoa.


⁷ WordPress MU:

EJIEko teknikoek horixe aukeratu dute Eusko Jaurlaritzak abian jarriko dituen blogak horren gainean eraikitzeke.



maiatzean atera zuten eta, dagoeneko, zazpi urte hauetan, % 12ko sarrera lortu dute, zenbait iturriren arabera. Hortaz, WordPress, GPLv2 lizentziapeko **software askea**, klusterren arloan Apache edota Linux produktuekin batera, puntako teknologia askea da.

WordPress **PHP** lengoia garatu dute, **MySQL** datu-basea erabiltzen du (gaur egun Oracle-rena) datuak gordetzeko, eta, lehen esan bezala, bi modalitatetan eskaintzen da: wordpress.com, instalatuta eta erabiltzeko prest; eta wordpress.org, dohainik saretik jaitsi eta norberaren zerbitzarian instalatzeko prest. GNU/Linux zein Windows plataformetan ibil daiteke.



WordPress-ek, beste plataformek ez bezala, doako *plugin* edo luzapen erabilgarri aske pila ditu, 12.000tik gora, eta asko erabiltzen dira (132 milioitik gora deskarga⁵). *Pluginak* modulu edo programa txikiak dira eta oinarriko produktu baten funtzionalitatea handitzen dute; produktu askeak direnez, garatzaileek *plugin* berri asko sortu dituzte. Zabalpen horren adibide



bat jartzearen, hor dugu blog askoren sarrera bakoitzaren azpian ikusten den ikono-barra. Ikono horietako baten gainean sakatuz gero,

zerbait abiaraziko da, hala nola, sarrera nabigatzailearen gogokoenen artean sartuko du, PDF bilakatuko du, inprimatuko du, edo sarreraren esteka LinkedIn, facebook eta antzeko sare sozialetara eramango du. Baditugu,

“WordPress-en MU edo *Multi-User* bertsioa erabiliz gero, instalazio bakar batekin blog asko egin daitezke, guztiz independenteak.”

bestalde, *mash-upak* edo beste web-zerbitzuetatik ateratako edukien nahasketa ahalbidetzen duten luzapenak. Horiei esker, besteak beste, *OpenStreetMap*-eko mapa bat edo *slideshare*-ko aurkezpen bat edo *flickr*-eko argazkiak edo *YouTube*-ko bideo bat sar dezakegu blogaren sarrera batean.



FUNTZIONALITATEAK

Blog guztiek izaten dituzten funtzionalitateez gain, WordPress-ek honako hauek ere baditu:

- Blogak erabiltzaile bat baino gehiago izan ditzake, blogger edo argitaratzailearen profilean beste batzuk gehituta; hala nola, egilea, laguntzailea eta harpideduna.
- Sarreraren sailkapena, etiketatzen eta zuhaitz-egitura izan dezaketen kategoriatan oinarritutako lexikoen bitartez.
- Blogari itxura ematen dioten diseinu-txantiloak; horietako asko erraz egokitu daitezke.
- Konfigurazio lekuanitza: “*Thelonius*”en⁶, 2010eko ekainean egindako 3.0 bertsioan, aldaketa garrantzitsua egin zen; MU edo *Multi-User* bertsioa sortu zen. Horri esker, instalazio bakar batekin blog asko erabat **independenteak**⁷ izan daitezke.

Arestian aparteko funtzionalitate bat aurkeztu dute, blogen esparru soiletik kanpo dagoena hein batean. Azken hilabeteetan WordPress-ak *BuddyPress* aurkeztu du, oinarriko produktuaren luzapena. Horren bitartez sare sozial bat sor daiteke, bertan parte hartzen

dutenen arteko komunikazioa errazteko.

KOMUNITATEA ETA ENPRESA

WordPress, lehen esan bezala, software askea da; beraz, erabiltzaile guztiek aukera dute askatasun osoz iturburu-kodea ikusteko, egokitzeko eta egokitzapen horiek banatzeko. Adibidez, erasoak jasateko arriskuak hautemateak eta segurtasunerako zuzenketak ez dira beti iturri bakarrekoak izaten. Hori bai, Automatic enpresa WordPress markaren jabea da. Berak kudeatzen du SaaS wordpress.com zerbitzua, eta komunitatearen beste pertsonekin eta erakundeekin produktuaren hobekuntza bultzatzen du.

Azpirarratzekoa da 2010eko irailean aipatutako Automatic enpresak, monopolioaren jabeak, WordPress fundazioari eman diola «WordPress»

marka. Mundu mailako komunitateak bihotzez eskertu du, ez baita ohikoa izaten enpresa batek hainbeste milioi balio duen marka bat dohaintzan ematea. Horren ondorioz, nahiz eta

“Blogak zabalera sozial handiko teknologia bilakatu dira, eta soslai soziologiko zein kultural askotako pertsonen erabiltzen dituzte.”


etorkizunean beste enpresa batek Automatic enpresa erosi, Oracle-k MySQL erosi zuen bezala, WordPress-ek software askea izaten jarraitzeko babestuta geratzen da. □



GIDALIBURU BERRIA

Bide batez, jakinarazten dizuegu **Lehendakaritzak** laster argitaratuko eta zabalduko duela *“Eusko Jauriaritzaren sare sozialak erabiltzeko gidaliburua”*.

Dokumentu horretan ezarriko dira web 2.0 bat abian jartzeko jarraitu beharreko zuzentzarauak, 2.0 ingurune berrietan Eusko Jauriaritzaren irudia estandarizatze helburuz; horretarako, beste kontuen artean, logoak, nomenklatura eta sarean solas egiteko modua emango ditu.





Gure Blogak

Eusko Jauriaritzak, haren sail eta erakunde autonomoen inizatibaz, hainbat blog jarri ditu abian. Hona hemen horien web-helbideak:

- <http://blog.gazteaukera.euskadi.net/>
- <http://blog.calidadfp.euskadi.net/>
- <http://blog.gizonduz.euskadi.net/>
- <http://blog.pip.euskadi.net/>
- <http://blog.quintoplan.euskadi.net/>
- <http://blog.ejie.es/>
- <http://www.kulturklik.euskadi.net/>
- <http://blog.euskara21.euskadi.net/>

Blog horiez gain, laster beste batzuk abian jartzeko asmoa dute (EJIEko teknikoak prestatzen ari diren plataforma berriaren bitartez). Blog berriekin, besteak beste, honako jardura esparruekin lotutako inizatibei erantzun nahi diete: Kanpoko Ekintza, Udal Liburutegiak, Osasungintza, etab.



Segurtasun Eskema Nazionalera eta PLATEA Segurtasun Eskuliburura egokitzeko plana



Artikulu honetan azalduko dugu, alde batetik, zer diren PLATEA Segurtasun Eskuliburua (PLATEA SE) eta Segurtasun Eskema Nazionala (SEN), eta, bestetik, nola prestatu den bi horiek betetzeko moduko Egokitzeko Planaren proiektua.



HIZTEGIA


⁸ **11/2007 Legea:**
Herritarrek zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko legea. Lege horrek ezartzen du hiritar guztiek dutela eskubidea herri-administrazioarekin bitarteko elektronikoz harremanak izateko, bai eta administrazioaren betebeharrak korrelatiboa ere, hiritarren oinarrizko eskubideak errespetatu daitezken.

Eusko Jaurlaritzak aspalditik arduratu da hiritarrei ematen dien zerbitzu elektronikoen segurtasunaz.

Dagoeneko, **abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuan, administrazio-prozeduretan bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen erabilera arautzen zuen hartan (EIT bitartekoaren Dekretua)** ezartzen zen EIT bitartekoaren bidez landutako agirien eta informazioaren egiazkotasuna, osotasuna, eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta kontserbazioa bermatzeko tresnak finkatu behar zirela; baita ere, berme horiek ziurtatze aldera, **Segurtasun Eskuliburu** bat jorratu behar zela, segurtasun-neurri orokorrak, teknikoak eta antolakuntzakoak ezarriko zituen eskuliburua, hain zuzen ere. Hemen azalduko dugun eskuliburuak, PLATEA Eskuliburuak, beste berme bat gehitzen die aurreko guztiei: trazabilitatea.

11/2007 Legean⁸ aipatzen diren bitarteko elektronikoa erabiltzeko konfiantza izan dezaten. Zehazkiago arituko gara, beraz, PLATEA SE eta ENSri buruz; ikusi dugun bezala, biek helburu berak baitituzte.

“Bitarteko elektronikoa konfiantzaz erabil daitezkeen egoera sortu, ezarri beharreko neurriak hartuz oinarrizko eskubide guztiak babesteko eta, bereziki, intimitateari eta norbere datuen babesari loturikoak, segurtasuna alor guztietan bermatuz: sistemak, datuak, komunikazioak eta zerbitzu elektronikoa.”
(Ekainaren 22ko 11/2007 Legea)



Estatu mailan, **Segurtasunaren Eskema Nazionala (SEN)** agertu zen, urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak araututa. Horrek bitarteko elektronikoen erabilerarako segurtasun politika ezarri nahi du: **oinarrizko hastapenak eta betebeharreko baldintzak** azaldu, informazioaren beharrezko babesa ziurtatze aldera. Laburki esanda, egoera sortu hiritarrek



Gure **eremuan**, EAeko Administrazio Orokorrean (Eusko Jaurlaritzak osatzen duten Sailak eta Erakunde Autonomoak) eta Izapidetze Telematikoen zerbitzu komunetan oinarrituta —administrazio elektronikoa (e-Administrazioa) garatzeko azpiegitura tekniko komunaren oinarrizko zutabeak— PLATEA SE sortu da Eusko Autonomia Erkidegoaren herri-administrazioari esparru arauemaile bat eman nahian. Esparru horrek bermatuko die, alde batetik, hiritarrei legeek aitortzen dizkieten eskubideak guztiz gozatu ahal izango dituztela eta, bestetik, erakundeei eta herri-administrazioaren langileei ezarritako

betekizunak bete ahal izango dituztela.

PLATEA⁹ deituriko izapidetze telematikoko azpiegituraz lan egiten duten zerbitzu eta sistema guztietara iristen da. Era berean, azpiegitura horri behar duen homogeneousotasuna ematen dio, **segurtasun-neurri orokorrak, teknikoak zein antolamenduzkoak** ezartzen baititu berme hauek betetzeko: trazabilitatea eta informazioaren egiazkotasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna, eskuragarritasuna eta kontserbazioa.

PLATEA SE bi ataletan banatzen da:

- **Segurtasun Politika.** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen helburu eta ildoan maila goreneko aitortpena da, informazio-segurtasunaren kudeaketari ekiteko bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen bidez eskaintzen dituen zerbitzu publikoetan.
- **Segurtasuneko Araudia.** Betebeharreko segurtasun-neurriak. Lehen atalean, informazioaren segurtasun-politikan, jasotako helburuen oinarri diren arauak jasotzen ditu. Maila horretan segurtasun-helburuak azaltzen dira eta hartu beharreko arau orokorrak aurreratzen dira. Atal hori da eskuliburuaren azken helburua.

Orokorrean aritzen da segurtasunari buruz, informazioaz gain beste alderdi batzuk ere kontuan hartzen baitira, hala nola, hardwarea, softwarea, sareak, datuak eta Izapidetze

Telematikoen Azpiegitura erabiltzen duten langileak.

Era berean, abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuan ezartzen den bezala, **Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2010eko otsailaren 26ko Agindua** argitaratu da. Agindu horretan aipatutako Segurtasun Eskuliburua onartzen da (2010eko apirilaren 21eko, 73 EHAA) EAEko Administrazio Orokorraren eta haren Erakunde Autonomoetan informazio-segurtasuna mantentzeko izapidetze telematikoa ahalbidetzeko aplikazio informatikoen esparruan, hau da, **PLA**taforma Teknologikoa **E**Administrazioarako (PLATEA). Eskuliburua euskadi.net webgunean eskura daiteke.

PLATEA SEn garapena islatzen da segurtasun-neurrien multzo ordenatuan eta zenbatuan (fitxa -multzo batean adieraziak).

SEGURTASUNAREN ESKEMA NAZIONALA

Ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarren zerbitzu publikoetako sarbide elektronikoi buruzkoak, hau dio hitzez hitz, 42.2 artikuluan: *“Segurtasun Eskema Nazionalak, Lege honen esparruan, bide elektronikoen erabilerarako segurtasun-politika bat ezartzea du helburu, eta informazioaren babes egokia ahalbidetzen duten oinarriko printzipioez eta gutxieneko baldintzez osatuta dago”*. Kontuan hartu behar da Lege




HIZTEGIA

⁹ **PLATEA:** Plataforma Teknologikoa EAdministrazioarako, Eusko Jaurlaritzako administrazio orokorraren eta bere erakunde autonomoen baitan administrazio elektronikoen zerbitzu komunak eskaintzeko asmoz. Azpiegitura hau lau zutabetan oinarritzen da:

- Integrazio Azpiegitura (PLATEA Integrazioa)
- Edukiak, atariak eta katalogazio-ardatzak kudeatzeko tresnak (PLATEA presentzia Interneten)
- Izapidetze telematikoa egiteko azpiegitura-sistemak (PLATEA izapidetzea)
- Agiriaren edo dokumentuen kudeaketarako azpiegitura-sistemak (DOKUSI)

Baita beste sistema horizontalak zein bertikalak ere; hala nola, segurtasun- eta egiaztatzeko sistema, erregistro-sistema, *framework* korporatiboa (GEREMUA) edo ordainketa-pasabidea (SIPCA).





HIZTEGIA


¹⁰ EAR-PILAR:

Akronimoak dira: Arriskuen Analisiaren Ingurunea eta Arriskuen Analisiaren Prozedura Informatikoa eta Logikoa; erdaraz, “*Entorno de Análisis de Riesgos y Procedimiento Informático y Lógico de Análisis de Riesgos*”. Tresna honek arriskuen analisia automatizatzen du bost aldagaitan oinarrituta (konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna, egiazkotasuna eta trazabilitatea); tresna horrek arriskua kudeatzeko babesak (edo aurkako neurriak) proposatzen ditu eta hondar-arriskua aztertzen du. 2010eko azaroan 5.1 bertsioa atera da, baita aplikazio berri bat ere, μ PILAR, PILARen bertsio sinplifikatua, arriskuen analisiak oso azkar egiteko. PILARek MAGERIT arriskuen kudeaketaren metodologia jarraitzen du (ISO/IEC 27005:2008 bezalako nazioarteko arauak egokitua).

horren eta, ondorioz, SENen ezarpen-esparrua zein den (nori eragiten dion):

- Herri Administrazio guztiei:
 - Estatuko Administrazio Orokorra
 - Erkidego Autonomoetako Administrazioak
 - Tokiko Administrazioa osatzen duten Erakundeak
 - Zuzenbide Publikoko erakundeak eta horien menpekoak.
- Hiritarrek Herri Administrazioarekin dituzten harreman guztiei
- Herri Administrazioen arteko harremani

Segurtasunaren Eskema Nazionalen ezarritakoa betetze aldera, Legeak esaten du Segurtasunaren Eskema Nazionalerako **Egokitzeko Plan** bat gutxienez izan behar dela, urtarilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua argitaratu eta gehienez handik hamabi hilabetera. Horrek esan nahi du 2011ko urtarilaren 29a baino lehenago, aipatutako legearen ezarpen-esparruaren barruan dauden erakundeek onartutako Egokitzeko Plan bat izan beharko dutela.




EGOKITZEKO PLANA EUSKO JAURLARITZAREN EREMUAN

Datu interesgarriak

Eusko Jaurlaritzan Egokitzeko Plan bakar bat egin dugu SENERako eta PLATEA SERako, bien helburuak komunak eta bateragarriak baitira. Proiektuaren izena “**SEN eta PLATEA SERako Egokitzeko Plana**” da, eta bertan analisi eta plangintza-lanak (**1. fasea**) aztertzen dira. Egokitzeko planaren lehen fasea 2010. urtean egin da (otsailean hasi zen), eta **hamasei hilabeteko epean** beteko dela aurreikusten da, 2011. eta 2012. urteetan (**2. fasea**).

Kontuan izan beharreko faktoreak

Egokitzeko Planaren arrakasta ziurtatzeko ezinbestekoa da, alde batetik, **zerbitzuen katalogoa** izatea, hau da, aktiboen inentarioa (informazioa eta zerbitzuak), eta, bestetik, Egokitzeko Planaren **hedapena argi mugatzea**. Hasieran azaldu bezala, kasu honetan, esparrua PLATEA azpiegitura teknologikoa erabiltzen duten zerbitzuetara mugatzen da, oso **esparru zehatza**, izan ere: EAEko Administrazio Orokorra (sailak eta erakunde autonomoak).



Planaren esparruan jaso ez dena

Horregatik, Egokitzeko **Planetik kanpo geldituko** dira, alde batetik, ondorengo Sare Sektorialak: Justizia –epaitegiak–, Herrizaingoa –Polizia eta Akademia–, Osasungintza –osasun-zentroak– eta Hezkuntza –ikastetxe publikoak–; eta, bestetik, Erakunde Administrazioa, hau da, Zuzenbide Pribatuko erakundeak, Elkarte Publikoak, Agentziak eta Parlamentua.

Egindako lanak

Hasteko, aktiboen inentarioa egin da; ondoren, PLATEA sistema kategorizatu da, hau da, aktiboen lau maila jaso dira EAR-PILAR¹⁰ arriskuen kudeaketarako tresnaren bitartez eta finkatutako segurtasun-domeinuen bitartez (alde batetik, Interneteko zerbitzuak eta aplikazioak, eta bestetik, barneko azpiegiturak eta aplikazioak):

- Zerbitzuen maila (sailak eta PLATEArenak)
- Pertsonen maila
- PLATEA maila (presentzia Interneten, izapidetzea, integrazioa, dokumentazioa, ordainketa-pasabidea)
- Azpiegituren maila (PLATEA makinak eta sare-azpiegitura)
- Egoitzen maila (Eusko Jaurlaritzaren egoitzak eta EJIEn egoitzak)

Horretarako, **landa lana** egin da, bai sailletako eta erakunde autonomoetako langileekin eta baita EJI Eren langileekin ere: PLATEA sistema osatzen duten aktibo guztiak ezagutzeko eta balioztatzeko.

Prozesu horren emaitzaz **PLATEA sistema goi mailako sistema bezala kategorizatu da**. Izan ere, sistema baten segurtasunaren kategorizazioa beste edozein alderdiren baina goragokoa da beti. Aktiboen balioztatzea egiteko kontuan hartu dira alderdi edo berme guztiak, hala nola: eskuragarritasuna¹¹, osotasuna¹², konfidentzialtasuna¹³, egiazkotasuna¹⁴ eta trazabilitatea¹⁵.



PILAR arriskuen kudeaketarako tresnari esker mehatxuak antzeman ditugu (batzuk ez ditugu aintzat hartu baztergarriak baitziren), probabilitateak eta narriadurak balioztatu ditugu, eta mehatxuak saihesteko neurriak ere antzeman eta balioztatu ditugu.


Ondoren, oraingo arrisku-maila eta ezarritako segurtasun-neurriak –bai SENen bai PLATEA

SEN– abian jarri ondorengo arrisku-maila identifikatu da; hau da, analisi bereizgarria egin da dagozkion segurtasun-neurriak erabilita.



Horren ondorioz, erabilgarritasunaren analisia egiten da jakin ahal izateko neurriak egokiak diren ala ez gure sistemarentzat. Kasu honetan, lehen esan bezala, GOI mailako sistematzat hartua denez, **neurri GUZTIAK ezarri behar zaizkio**. Hori guztia egin ondoren, **Egokitzeko Planaren** agiria eratzen da: faseak, atzak eta horiei loturiko kostuak, baita denboran zehar egindako plangintza ere. □

Egokitzeko plana



Egokitzeko Planaren Proiektuaren agiriak, aurkezteko

- ✓ Proiektuaren aurkezpena (proiektuaren planifikazio orokorraren deskribapena)
- ✓ Informazioaren kalifikazio-politika (EAEko Administrazio Orokorraren informazioa kalifikatzeko erabili beharreko irizpide-multzoa)
- ✓ Sistemen kategorizazioaren txostena (segurtasunaren kategorizazioa, hedapenean aztertutako sistema bakoitzaren arabera)
- ✓ Sistemen segurtasun-egoeraren txostena (segurtasunaren ezaugarriak, hedapenean aztertutako sistema bakoitzaren arabera)
- ✓ Arriskuen analisiaren txostena (hedapenean aztertutako sistemei

egindako arriskuen analisiaren ondorioak)

- ✓ Aplikagarritasunaren adierazpena (EAEko Administrazio Orokorraren aplikatu beharreko segurtasun-neurriak)
- ✓ Egokitzeko Plana (SEnerako eta PLATEA SERako egokitzeko proiektuaren plangintza)
- ✓ Txosten betearazlea (azken txostena, proiektuan zehar egindako jarduerak laburtzen ditu, eta SEN eta PLATEA SERa egokitzeko proiektua garatzeko betebeharreko alderdi nagusiak azaltzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoaren beharren eta itxaropenen arabera)



HIZTEGIA

11 Eskuragarritasuna:

Ezaugarri honek bi funtzio ditu. Batetik, erabilzaile baimenduei bermatzea informazioa eta dagozkion aktiboak eskuragarri izago dituztela nahi dutenean. Eta, bestetik, zaintzea erabilera baimenduak eragozteko saiorik egon ez dadin.

12 Osotasuna: Ezaugarri honek bermatzen du informazioak bere horretan dirauela, aldaketarik edo eraldaketarik gabe.

13 Konfidentzialtasuna: Ezaugarri honek bermatzen du informazioa ez zaiola ez inori, ez zeri, emango, jakinaraziko edo zabalduko, baimenik gabe; ez pertsoneri, ez erakundeei, ez prozesuei.

14 Egiazkotasuna: erabilzailearen identitatea bermatzeko ezaugarria da.

15 Trazabilitatea: Ezaugarri horren bitartez ziurtatzen da edozein unetan jakin daitekeela nork zer egin duen eta noiz egin duen; beraz, informazioei zein zerbitzuei (*accountability*) ezartzen zaie.



ALBOAN:

Genero-zuzentzailea



Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea)

"Euskal herri-agintek ez dute hizkera sexista erabiliko sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan."

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoak, 18.4 artikuluan hauxe ezartzen du: *"Euskal herri-agintek ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan".*



IBILITAKO BIDEA

Aspalditik, jende asko saiatu da emakumeen existentzia hizkuntzaren bidez adierazten, emakumeen jarduerak eta izateko erak izendatzeko; hori baita modu bat –eta ez nolana hiko– edozein esparrutan emakumearen bizitza eta egoera hobetzeko.

Saiatze horretan ibilitako bidea ez da berria. Horren erakusle dira Emakundek prestatutako argitalpen hauek:

- *"El lenguaje instrumento de progreso"*, 1992an argitaratua.
- *"Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak"*, 1998an argitaratua.
- *"Generoaren ikuspegia komunikazioan eta irudi korporatiboetan"*, 2004an argitaratua.

Beste adierazle bat, garrantzizkoa hau ere, gai honetan lortutako aurrerapenen datuak dira. Horrela, *"4/2005 Legearen ezarpenari buruzko Bitarteko Ebaluazioa"* agiriak (2008) gaztelaniaren erabilera aztertu zuen EAEko Agintaritza Aldizkarian eta hiru Lurralde Historikoetako Aldizkari Ofizialetan, baita zenbait erakunde publikotako webguneetan argitaratutako dokumentuetan ere.

Ebaluazio hartako emaitzen arabera, 2005eko datuekin alderatuta, askoz handiagoa zen hizkuntza ez-sexistaren erabilera: % 2,5 2005ean

eta % 68,8 2008an.

Administrazioak banan-banan aztertuz gero, EAEko Administrazio Orokorraren dokumentuetan dago hizkuntza ez-sexistaren erabilaren ehunekorik altuena (% 78). Foru eta Tokiko Administrazioetan ere gorakada nabarmena igarri da, % 64 eta % 63, hurrenez hurren.

Horixe bera gertatzen zen webguneetan, 2005eko % 17tik 2008ko % 69ra igo baitziren, nahiz eta kasu honetan banaketa desberdina izan den: EAEko Administrazioaren webgunean ikuskatutako testuen % 94tan hizkuntzaren erabilera ez zen sexista, foru-administrazioetan, aldiz, % 56tan, eta tokiko administrazioetan % 68tan.



EUSKARAREN KASUA

Proposamen orokorren etapa gainditzeko aurrerapauso bat eman nahi izan dugu. Zenbait arlotako profesionalak gero eta gehiago eskatzen dutenari erantzuteko, gida praktikoak prestatu


dira hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta ez-androzentrikoa¹⁶ modu errazean ezartzeko lantresna gisa erabil ditzaten. Gida praktikoa esparru zehatzetara egokitu dira, hala nola: Hezkuntza, Kultura, Osasuna eta Kirola.

Euskararen erabilerari dagokionez, 1993an eman ziren lehen gomendioak.

Arestian *“Euskararen Erabilera Ez Sexista”* argitaratu zen, eta orain, gida horretatik abiatuta, azken hilabeteotan **tresna informatiko bat** garatu da. Horri buruz arituko gara artikulu honetan. Tresna horrek **gidan azaltzen diren hitzak, esaldiak edo esamoldeak antzematen ditu** dokumentu baten barruan eta zuzenketa automatikoa proposatzen du ezarritako irizpideen arabera.

Ikuspuntu teknikitik, zuzentzailea *plug-in* moduan ibiltzen da eta **Microsoft**eko pakete ofimatikoko Word testu-prozesadorean integratu daiteke (2003, 2007 eta 2010 bertsioetan), baita **OpenOffice.org**-ko pakete ofimatikoan ere (3.x eta Windows bertsioetan). Konponbide hori, beraz, ordenagailuan instalatutako zuzentzaile ortografikoaren gisan erabiltzen da, eta laster prest egongo da Eusko Jaurlaritzaren ekipo informatiko guztietan instalatzeko. Aldi berean,

beste erakundeen eta norbanakoen eskura ere jarriko da, nahi duenak erabil dezan. □



“Tresna horrek «Euskararen Erabilera Ez Sexista» gidan azaltzen diren hitzak, esaldiak edo esamoldeak antzematen ditu dokumentuen barruan.”

Zenbait adibide praktikoa

Jarraian azalduko dizkizuegu generozuzentzaileak hautematen dituen adibide batzuk:



- Generoa daramaten **hitzak**:
 - *Lege-Gizon* ⇔ *Legelari*
 - *Semeak* ⇔ *Seme-Alabak*
 - *Aitak* ⇔ *Gurasoak*
 - *Osabak* ⇔ *Osaba-izebak*
 - *Maisuak* ⇔ *Maisu-Maistrak*
 - *Erregeak* ⇔ *Errege-Erreginak*
 - *Anaitasun* ⇔ *Senidetasun*
 - *Anaiarte* ⇔ *Senitarte*

- Generoa daramaten **izenondoak**:
 - potolo / potola*
- Honelako **esaldiak**: *'gizon portatu' _behar bezala / ederto / primeran portatu*
- Honelako **esamoldeak**: *Mari-purtzil, mari-gizon ('mari' terminoaren erabilera sexista).*
- Zenbait **hitz**, adibidez, *marika, atzelari, emagizon, emazte-gizon, atsogizon, marikoi, maritxu, homosexualak, bisexualak, transexualak eta queen-ak* izendatzeko.

¹⁶ **Androzentriko**: *“Androzentrisismo”* hitza grezierazko *Andros* (gizona) hitzetik dator. Ikuspuntu horren arabera, gizona jartzen du gizateriaren ardatzean, erdigunean eta neurrian, beste errealitateak ezkutatu (besteak beste, emakumeak). *“Ginozentrismoa”* da horren kontrakoa.

[informazio gehiago]:

Emakunderen webgunea
www.emakunde.net





40. zk.

2010eko abendua

BERRI LABURRAK!!

EKONOMIAZ aldizkariaren hogeita bosgarren urteurrena

Lerro hauen bidez zoriondu nahi ditugu **“Ekonomiaz”** ekonomiari buruzko euskal aldizkariaren zuzendaritza eta lankideak, argitalpen horren **25. urteurrena ospatu berri baitute**. Horretarako, jendaurreko ekitaldi bat antolatu zuten, eta zenbaki berezi bat aurkeztu zuten 1980-2010 urteen arteko euskal ekonomiari eta politika publikoei buruz.

“Ekonomiaz” aldizkaria 1985ean sortu zen, euskal ekonomiaren erronkak eta errealitatearen gertuko erreferentzia izateko eta, aldi berean, eskualdeko ikuspuntua emateko. Geroztik, 74 zenbaki argitaratu dira eta 1.100 artikulutik gora: 1997. urtetik hona, paperezko edizioarekin batera **edizio elektronikoa** izaten dute **euskadi.net** webgunean txertatuta. Edizio berri hori egokituz joan da irisgarritasun-arauetara

EKONOMIAZ
Revista Vasca de Economía

eta estilo korporatiboaren estilo-arauetara. Artikuluak indexatu dira haien gainean bilatzaile bat erabili ahal izateko eta, besteak beste, testu aske bidezko bilaketa gehitu dute; era berean, aldizkarian itzulita agertzen diren ingelesez idatzitako jatorrizko testuak ere eskura daitezke.

Jabetza intelektualari dagokionez, azpimarratu behar dugu *Creative Commons* lizentziaren arabera banatzen direla argitaratzen diren jatorrizko artikulua.

Halaber, aurki, **“Ekonomiaz”** Interneteko ekonomiari buruzko artikuluen bilduma nagusian txertatuko da: **RePEC** (*Research Papers in Economics*). Txertatze horri esker, irakurleen kopurua askoz handiagoa izango da.

Zenbaki guztiak eskura dituzue webgune honetan:




<http://www.euskadi.net/ekonomiaz>

Internetez eta nabigatzaileez ikasi ditudan hogeita kontu

Google-k argitaratutako liburuaren izenburua da (ingelesez, **“20 Things I learned about browsers and the Web”**). Egutero Internet erabili arren, informatikaz edo Internetez gehiegi ez dakiten pertsonentzat idatzita dago. Laguntza liburu da, gaur eguneko kontu teknologiko korapilatsu eta interesgarriak soil azaltzen ditu, edozeinek uler dezan.

Liburu **hezigarria eta interaktiboa** da, Google Chrome-ko ekiopa sortu du HTML5 erabiliz (HTMLren, World Wide Web-aren oinarriko lengoaiaren bosgarren berrikusketan), eta Christoph Niemann, haurren inguruan lanean diharduen alemaniar irudigilearen irudiak ditu.



Hogei gai horietan ikusten da, besteak beste, gaur egun **zer den Internet eta zer diren nabigatzaileak** eta zenbait galderari erantzuten die; horien artean: Nola dabilta nabigatzaileak? Zer behar da web-ean zehar segurtasunez eta eraginkortasunez nabigatzeko? Zer da *cloud computing* (hodeian nabigatzea)? Zer dira HTML, CSS eta JavaScriptak? Zer da IP helbidea? Eta DNSa? Zer dira *cookieak*? Zer dira *plug-inak*? Zergatik babesten gaituzte gaur eguneko nabigatzaileak *malware*, *phising* eta segurtasunaren aurkako beste erasoetatik? Nola balioztatzen dira identitateak sarean? Etab.

<http://www.20thingsIlearned.com>

